

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Navarrabiomed-eko bi ikertzailek minbiziaren aurkako immunoterapia-arloko liburu bat argitaratu dute, nazioartean erreferentziazkoa dena

Immunologiaren Munduko Eguna ospatzen dela-eta, jendearentzat zabalik dagoen jardunaldi batean minbiziaren eta beste patologia batzuen aurkako azken aurrerapen esperimentalak erakutsiko dira bihar, Planetarioan

Osteguna, 2016.eko apirilak 28

[Navarrabiomed](#) ikerketa biomedikoko zentroko ikertzaile Davis Escorsek eta Grazyna Kochan-ek koordinatu dute minbiziaren aurkako immunoterapia-arloko argitalpen bat, nazioartean erreferentziazkoa dena: [Myeloid-Derived Suppressor Cells and Cancer](#) ("Mieloide jatorriko zelula ezabatzaileak eta minbizia") du izena, eta Springer argitaletxea zientifikoak argitaratu du. Ikertzaileek zelula mieloide ezabatzaileen funtzionamendua deskribatzen dute, minbizi-tumoreen garapenaren eta metastasiaren eragileak direnak.



Grazyna Kochan eta David Escors, Navarrabiomed-eko ikertzaileak.

Alor horretan aritzen diren nazioarteko ospe handiko beste hiru zientifikok ere parte hartu dute obran: Karine Breckpot eta Jo Ginderachter-ek, biak ala biak Bruselako Unibertsitate Librekoak; eta Nebraskako Unibertsitateko (AEB) James Talmadge-k.

Escors eta Kochan Navarrabiomed-eko [Immunomodulazioko Ikerketa Talde](#)aren barnean daude, eta hura, aldi berean, Nafarroako Osasun Ikerketako Institutuan ([IdiSNA](#)) sartuta dago. Biek zelula mieloide ezabatzaileen arloan egiten dute lan.

Bere lorpen handienen artean, anti-PD1 eta anti-PDL1 (gizakiengan eraginkortasun kliniko handikoa) minbiziaren aurkako tratamenduen ekintza-eragile nagusi baten aurkikuntza dago, eskala handiko zelula mieloide ezabatzaileak sortzeko sistemaren patentea melanomako helburu terapeutiko berriak identifikatzeko, eta gizakien immunitate-sistemaren zahartze-prozesuaren aurkikuntza, Londresko *University College*-rekin batera egindako lana.

Adituekin egindako mahai-ingurua bihar, ostirala, Planetarioan

David Escors-ek "[Minbizia. Terapia experimental berriak](#)" izeneko hitzaldia emango du. Ikerketa Mediko Aplikatuko Zentroak ([CIMA](#)) antolatu du, Immunologiaren Munduko Eguna ospatzen dela eta. Jardunaldian, minbiziaren eta beste patologia batzuen aurkako azken aurrerapen esperimentalak aurkeztuko dira.

Ekitaldia 19:00etan hasiko da Iruñeko Planetarioan, eta honako hauen partaidetza izango da ere: Iruñeko Ospitaleguneko onkologo eta ikertzaile Ruth Vera eta Nafarroako Unibertsitate Klinikoko eta CIMako